



Entitate publikoek eta partikularrek dituzten lurak Nekazaritza Lurren Funtsean sartzeko aukera dute. Funtsak lur horien erabilera kudeatuko du, beste interesdunen eskura utziz, bere proiektuak garatu ditzaten. Horrela, jabeen, Nekazaritza Lurren Funtsaren eta esleipendunen arteko erlazioaren bitartez, finkak Funtsean sartzeko baldintzak eta lurak esleitzeko prozesua ezartzen dira.

Nekazaritza Lurren Funtsean finka bat sartzeko, sartzeko eskaera bat egin beharko duzu **“Lurra eskaini nahi dut...”** lekuan. Inprimakia bete, inprimatu eta eskaera Nekazaritza Bulegoan aurkeztu behar da.

Eskaerari dagokion dokumentazioa Nekazaritza Bulegoetan aztertuko da eta sarrera erregistroa emango zaio. Era berean, horri buruz sortutako edozein zalantza argitu eta behar duen informazioa emango zaio.

Izapide hori igaro eta Nekazaritza Lurren Funtseko langileek aldeko txosten teknikoa egin ondoren, bitartekaritza eskaera formalizatuko da Gipuzkoako Foru Aldundian nekazaritza gaietan eskumena duen Departamentuaren eta finkaren edo eskubidearen titularraren artean, zuzenbidean onartutako edozein negozio juridiko erabilita, departamentuak emandako eredu normalizatuei jarraituz, eta bertan ezarriko dira alde bakoitzak bete beharreko baldintzak, eskubideak eta betebeharrak, eta negozio juridikoa hausteko arrazoiak eta ondorioak.

Ondoren, finka prest egongo da aprobetxatu nahi duten erakundeei edo pertsoneri esleitzeko.

Alokairu epea bukatzen denean, Nekazaritza Lurren Funtsak finkaren jabetza jatorrizko egoeran bueltatzea bermatzen du. Era berean, ezarri den alokairu prezioa kobratzea ere bermatzen du, Nekazaritza Lurren Funtsa arautzen duen 10/2013 Foru Dekretuaren 15. artikulua jartzen dituen terminoetan.

Nekazaritza Lurren Funtsean sartzeko eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da urte osoan.